

«Mundua Berak egiña dau,
ta munduak ez dau ezagutu»

(Jon., 1, 10)

Gogapen bi oneik ez dabiltz esan-nai barik. Bi-biak, atan be. Biotza, gizonok daroagun aragi ta giar-moltsoa da, baiña geure zauskada ta sentipen leku lez artu oi dogu; odolak, izan be, ba-dau here egitekoa gure arima ta gorputz artean, eta arimaren eta gorputzaren arteko zirrada bat asmatu ta artzean, biotzak zabaldu ta itxi odola darabil, gora ta beera, gorputzeke zan nausi ta birikitara aurten hait duaz.

Biotzez maite dogula zera? Biotz gauzak maite doguz, zera maite maite doguz; mundua be maite dogu. Baiña, mundua zelan? Biotz egiña dogulako, ta bertan? Biotz txori, landara, izar, zera, izonek zer guztietan Aran loraiza dabil dogulako? Ala gauza eder guzti onen alhora baztertuaz, bertan, diruz, atsegiñez ta andi-naiez burutu doguna dalako?

Or gogapen edo ideia bi guztiz ezhardiñak. Mundua ezta sarritan gure gogapen eta asmoetan. Jaunak egiña, beiñola ezerezetik sortu ebana, Joan deunak «munduak ez dau ezagutu» diñoanean adierazo

Biotza

eta

mundua

gura dauskuna baiñe. Jaunak egiña, begiz dakusgun au da, inguruan daukaguna, guztiz eder ta bikaina, zoragarria, bertan dan guztiaz. Biotzak, ostera, bertoko zertan izanzenik eztau oartzen ez zentzuz.

Biotz guztietan, zera besterik biotza ez daukaguna, zera be baiñe; mundua be zera zera. Biotzaren batek zera zera onen maite nai ez, onen gogapen zera zera, geure gogotzko zera zera edo ta gogaitzen dau. Biotz biotzek ere sustraizko au, berriz, gaur mugatu ta adierazo dogu; gizonak len be maite izango ebazan munduko gauzak bere ongarri lez; baiña ideia au mugatu ta bereziturik erabilli ebenak. Joan deuna, Paul deuna ta olakoak izan ziran. Paul deunak, esaterako, mundua aitatzen dauanean, eztau esan nai begiz ikusten dogun gaudi edo kosmos au. Ez, gizonaren

egoera ta naikariak gogora ekarri nai ditu; gizonak kosmos orregaz ditun artu-emonak, bertako gauzak eta ondasunak onartu naiz ezetsi dagizanean, aren barruan zerk bol-bol dagian... Gizonaren egoera aparteko bat erakutsi naidausku; Jainkoak sortu eban munduari begira zer jar-era dauan, nunbait. Mundu zabalak —Jainkoaren diztira baita— batu ta alkartu egin oi gaitu Aregaz; bertoko gauzak eta edertasunak ikusirik, berez antzera goiaz Egilleagana igonik.

Beste mundua, ots, biotzarena, gizonaren bizikera bat dozu; «mundu onetako jakituriz» zuzendua, edo-ta Jainkoagandik aldendua. Jon deunak ideia biok urratzen daskuz bere Ebanjelioaren asieran: mundua Jaunak egiña da, baiña Kristo, Jainkoaren Itza zertik lurrera jatsi zanean, munduak —giza-biotzak— ez eban Jainkoa ezagutu.

Ikus Agustin deunak onetzaz diñoana: «Zer esan nai dau: **Mundua Berak egiña dau?** Mundu izena zeruari, lurrari, itxasoari ta eurotan sartzen dan guztiari emoten yako. Beste zentzun batean, mundua dira onen maitatzailleak. **Mundua Berak egiña dau, ta munduak ez dau eza-**

gutu. Zeruak be ez ete eben ezagutu euren Egillea, aingeruak eta izarrak bere ez, deabruak eurak be ezagutu ebenean? Danok alkarren leian emon eben Aren testigantza. Nortzuk, ba, ez eben ezagutu? Munduari eutsen maitasunaren mundua deituak izan zirauak: oneik ez eben A ezagutu. Maitasunak dagi biotzez bizi izatea. Arei, beraz, mundu-maitasunak mundu-izena eroatea merezi izan eutsen, munduan bizi zirean eta. Onan esan oi da: Etxe au ona da, naiz etxe au txarra da. Txarrean be ez doguz ormak laidotzen, ezta onan goratu be. Onaren naiz txarrean izena bertan bizi diranak ezarten dautsegu. Zentzun onetan, mundu-izena maitasunez bertan murriztu ta bizi diranak daroe. Norak be dira oneik? Mundua maite dabenak. Arein biotzak antxe, munduan jarri dau bere bizitokia. Mundua maite ez dabenak, gorputzez bakar-bakarrik bizi yatzuz munduan, biotzez zervan bizi dira-ta» (Tract. Ev. S. Joan., 2, 11).

Mundu-itzak zentzun edo esangura bi daukaz, naikoa bereziak: Jaunak egiña. Eta onek diñoanez, mundua Jaunak sortua ta egiña da; munduan ikusten dana ta ez-tana, au da, kosmos ta abar, Jaunak ezerezetik egiñak dira: zeru,

lur, itxaso ta bertoko guztia, ots, aingeruak eta gizonak. Bigarren zentzuna au da: San Juan'ek diñoana: Berak egin eban mundua, eta munduak ez eban ezagutu. Ta mundua bertoko naiz mundu onen maitatzailleak dira, au da, osotu ta biribiltzen dabe.

Beraz, gauza bi ditugu Jainkoak egiñiko mundua ta giza-biotzak antolatua. Bata da mundu zabalak, goi ta bee, agiri diran eta ez diran gauza guztiena; Jaunak uts eta ezetik baztertu ta bere indar-alez iraun-azten dauana. Bestea, ostera, Jainkoaz itsu diranak eraiki ta eratzten dabena; mundu au osotzen dabe, ziur asko, dana dan guztia. Jainkoa iragarri ta azaldu bezerik, egiten ez dauala ez dakienak, ezta gogoratu nai ez dabenak.

Errez aitzu daroe au. Euren biotza ezta, ba, Goikoarentzat; beeko gauzetan daukie josirik. Lur gaineko gauza bakotxa, berez maitagarri balitz lez, maite dabe, danagaitik eta besteekandik banandua dalako. Bakana da, ta bakantasun ori begiko yaku; au egiterakoan, baiña, gauza bakotxaren indar berezia illundu egin oi da, gauza bakotxa dana ta ez dana argi agertzen yaku-ta.

Munduko gizona, mundu au maite dauana, Jainkoak egindako mundutik aldendu egiten da, norberak osoturiko mundu ertsi ta apartekoan bizi izateko. Orrela, Jainkoaren agerpen edo ezaugarri diran gauzak euren egiatzko izate-tik eratsi ta beste jaubetza batez jantzi oi dira, beste bakarrekiko zer-izate baten biurturik.

Maitasuna da, zer barri baten eusle lez, giza-bizitza guztiaren oinarri. Maitasunez jaso ta goratzen da mundu barri bat, baita bertan bizi izan be. Baiña, ona gizon bi. Bata argi-alea, ta bestea gogo-zaldea. Bata zuzen ba-da hostelakotatzen. Mundu bat bertan bizi dira, onen itxo: biziak be dabe, maitasun ba. Onen ta ditu bota bezeagan-ekin bananduten. Zer maite daben, ba, maitasun erak, orrek berezitu ta beranduren ditu.

Mundu-zale dan biotza Jaungoikoagandik urrintzen da pizkaka pizkaka; Agan eukazan sustrai ta erroak ausirik, beste zerbaitegan jarten dauz. Eta gaudia —kosmos— giza-biotzak sortutako mundu orren aurka jarten da. Jainkoa bazter itxi daroagu, geuk antolatutako munduan nasai bizi nairik: mundua ez dogu maite Jaunarena dalako, bera danez baiño. Begiak

ez ditugu goian ezarten, beeko gauza soilletan baiño.

Mundu au gizon aragi-zaleak «dagi», egiten dau. Noiz, baiña? Bere soin-atalak, osotasunetik atera ta maite dauanaren inguru barriz egokitzen dauzanean. Maitalearen biotzak antxe dagi bere abia, bere bizi-tokia, berak asmau ta eraturiko mundu orren erdian. Eta maite dogun munduan bizi gara, sarri gorputzez ez, baiña biotzez bai. Biotzez bizi naiteke emen naiz beste leku batean. Santuak eta arima onak, soñez lurrean aurkitu arren, gogoz zeruan bizi dirala, esan oi da.

Diferentzia onetan datza: maite dogun mundua Jainkoak egiña bada ta bertan Egillearen lorratz bikaiña besterik ez ba'dakusgu, mundu ori ederra dozu, maitasun ori goikoa dozu. Baiña arrokeriz ta itsukeriz mundu onetatik alde egin ta geuk atonduriko sasi-munduan bizi ba'gara, Jainkoak egiñari, zakar jokatus, zerbait ostu ba'dautsagu, orduan ez gabiltz ondo, orduan mundu aizunean ondatuta gabiltz.

Giza-biotzak olan eratsi egiten dau Jainkoak egiñiko mundua, ta bere olde ta gurariz eratsi be. On-

doren, uts ori bete bear. Zegaz ete? Berak osoturiko zerbaitegaz. Eta, au edo bestea maite izan dala-ko, ari edo oni biotza itsatsi dautsagulako, Egilleaz alkaritzen ginduezan lokarriak autsi ta eten oi doguz. Mundua maite dogu, ez Jainkoarekiko argiz ta maite-suz, norberekoizko kemen ta indarrez baiño. Jainkoa itxi ta mundu berezi onetako gauzak maitasun orren inguruan eratu ta ipiñi or gizonaren pekatua.

A. Baseta



Eguna argitzean euria goi-bean, Zeru urdiñarengan lainoak aidean.

Yolas egin nai dute, elkarrez dantzatu, Otuak, irrintziak, denok katez lotu.

Tan-tan tantoka dira lurrera erortzen, Odeien garraxiak elur dira biurtzen.

Lurrak irintzi nai bularrak zabalduz, Barneko egarria ase du txastatuz.

Emeki arnas otzez uraren kabia, Arkaitz-sabel legorrez eioz iturria.

Saltoz txintzer gainean egoak astinduz, Zugaizti ixilean txoriak mantenduz.

Iges-iges gain bera... Beldurrak darama, Karraxien kelarra...! Gaur, mendien Ama,

Izaren naigabez gelditzen naiz minez, Eguna erori da guaren oiñazez.

Eta nere malloak ez dira asetzen... Errekaren begiak nautela otoizten.

Gaillurreko ametsak nigaz daramazkit, Itxas amorratuak surgatuko dizkit.

“Mintza

zaitez

bere

itzez”